

## / Nabarmenezkoak

- > Dalila Argueta ekintzaile hondurastarraren lurraren defentsari buruzko hitzaldia (2. or.)
- > "Todas las hijas", emakumeen beldurrei buruzko bidaia (3. or.)
- > R.S.C-Abrako Itsas Klubak Special Olympics hartuko du (4. or.)



\* J.A.Sellan, Txato, oso presente Mesedetako jaietan (4. or.)

**Komiki Azoka.** Irailaren 29tik urriaren 1era arte. Merkataritza-gunea, 40 stand-ekin, Areetako Geltokia plazan. Romo Kultur Etxean, jarduerak (hitzaldiak, aurkezpenak...).

**A-  
GENDA**

**Antzerkia.** Ostiralean, hilak 29, 19:30ean, Muxikebarrin, "Los días ajenos de Bob", Bob Popen eskutik. 12€.

**Ekonomia dinamizatze, asoziazionismoa sustatzeko eta funtzionamendu-gastuetarako**

## Udalak 91.000 euro baino gehiago eman dizkie Getxoko lau merkataritza-eta ostalaritza-elkarteri

Udalak 91.620 euroko dirulaguntza eman die udalerriko merkataritza- eta ostalaritza-sektoreetako lau elkarteri, 2023ko Ekonomia Dinamizatze Laguntzen 1, 3 eta 4 le-roei dagokiena. Juanma González Getxolan-Ekonomia Sustapeneko zinegotziak nabarmendu duenez, "udalerriko profesionalek eta enpresek zerbitzu, produktu eta/edo horiek merkaturatzeko modu berriak garatzeari dagokionez berrikuntzak egin ditzaten babesten eta sustatzen saiatzen gara, baita eraldaketa digitala bultzatzen ere, hau da, Getxoko herritarren bizitza hobetuko duten proiektuak garatzen".

- **1 ildoak** 54.749 euro eman ditu, hainbat motatako jarduerak dituzten merkataritza-ardatzak ikusarazteko, sustatzeko eta dinamizatze ekintzetan laguntzeko: Algortako Dendak elkarteak 15.950 euro jasoko ditu



"Tokiko merkataritza gure kaleetan" (desfile ibiltaria) eta "Tokiko merkataritzak zurekin ospatzen du" (sarien zozketa) proiektuetarako; GetxoEnpresak 23.187 euro jasoko ditu parte hartzen duen establezimendu bakoitzari bideo indibidualizatuak egiteko proiekturako, eta erakuslehoak dinamizatze beste baterako; eta Romo Bizirik elkarteak 15.612 euro lortuko ditu "Auzoa kolorez-

tatzen" (egoera txarrean dauden saltokietako pertsianak edo fatxadak grafiti bidez berrizatzeko) eta "Romotik Mundura" (Romo eta Pinuetako saltokien eta enpresen tokiko azoka) ekimenetarako.

- **3 ildoak** elkarteen funtzionamendu-gastuetan laguntzeko, 26.071 euro banatuko ditu: Algortako Dendak elkarteak 4.068 euro jasoko ditu, GetxoEnpresak

20.000 euro eta Romo Bizirik elkarteak 2.003 euro.

- Azkenik, **4 ildoak**, elkartegintza mantendu eta sustatzera bideratutakoak, 10.800 euro banatuko ditu: Algortako Dendak elkarteak 1.900 euro jasoko ditu, ASHOGE Getxoko Ostalaritza Elkarteak 1.500 euro, GetxoEnpresak 1.500 euro eta Romo Bizirik elkarteak 5.900 euro.

## BizkaiBizi instalatzen hasi dira, Bizkaiko Foru Aldundiaren bizikleta elektrikoaren sistemako geltokiak

Udala hasi da instalatzen Bizkaiko Foru Aldundiaren bizikleta elektrikoak mailegatzeko BizkaiBizi zerbitzuaren geltoki berriak.

Foru zerbitzuaren kokapen berriak egongo dira orain arte GetxoBizi Udal zerbitzukoak egon diren lekuetan. Kasu gehienetan, bi geltokiak (Forukoa eta Udalekoa) elkarrekin egongo dira, bata besteari ondoan, ilaran, jarraian aipatzen diren kasuetan izan ezik, horietan Udal zerbitzua metro batzuk lekualdatzen baita:

- Udaletik Epaitegietara
- Bidezabaletik Osasun Zentroko arkupeetara
- Gobela kiroldegian igerilekuen sarreratik hurbilen dagoen gunera

- Ereagatik La Terraza jatetxearen aurrealdera
- Bizkaia Zubitik plazako eskaileren beste aldera.

BizkaiBiziko bizikleta elektrikoek itsasadarraren eskuineko eta ezke-

reko ertzak hiriburuarekin lotuko dituzte. Gaur egun, inplikaturako udalerrietako udaletan geltoki horietako instalazioak daude, baina ez dago zerbitzurik. GetxoBiziko bizikletek udal zerbitzuko geltokietan

aparkatzen jarraitu behar dute. Foru Aldundiak BizkaiBizi zerbitzua martxan jarriko duela jakinaraziko die herritarrei, baita erabilera-baldintzak, tarifak eta bestelako baldintzak ere.







### IRAILAK 29 OSTIRALA

**Antzerkia (entsegu irekia).** EMCUMEAK, Zelako Kultur Ideiak-en eskutik ("Juana Bizkarra" Arte Eszenikoen 3. Egonaldirako aukeratutako proiektua), 19:00etan, Muxikebarri. Euskaraz. Sarrerak: Muxikebarriko txarteldegian zein Romo Kultur Etxean jaso beharreko gonbidapenez.

**Antzerkia.** 19:30ean, Muxikebarri, "Los días ajenos de Bob", Bob Popen eskutik. Sarrera: 12€.

**Komiki Azoka.** Merkataritzagunea, 40 stand-ekin, Areetako Geltokia plazan. Romo Kultur Etxean, jarduerak (hitzaldiak, mahai-inguruak, aurkezpenak) eta Shaun Elayren "Arte en negativo" erakusketa (urriaren 22ra arte).

### IRAILAK 30 LARUNBATA

**Antzerkia (aurre-estrenaldia).** EMCUMEAK, Zelako Kultur Ideiak-en eskutik ("Juana Bizkarra" Arte Eszenikoen 3. Egonaldirako aukeratutako proiektua), 19:00etan, Muxikebarri. Euskaraz. Sarrerak: Muxikebarriko txarteldegian zein Romo Kultur Etxean jaso beharreko gonbidapenez.

**Hitzaldi-kontzertua.** Muxikebarri, 20:00etan, "Viaje al centro de la música sinfónica y coral", EHUorkestra sinfonikoa & Mercedes Albaina, Biotz Alai eta Esku Esku abesbatzen eskutik. Sarrera: 8€.

**Bisita gidatua eta antzeztua.** Portu Zaharra bere sustraietatik. 11:00etan, Ereagako Turismo Bulegotik. 6€. Informazioa: Turismo Bulegoa: 94 491 08 00 / [www.getxo.eus/turismo](http://www.getxo.eus/turismo)

### URRIAK 1 IGANDEA

**Antzerkia (aurre-estrenaldia).** EMCUMEAK, Zelako Kultur Ideiak-en eskutik ("Juana Bizkarra" Arte Eszenikoen 3. Egonaldirako aukeratutako proiektua), 19:00etan, Muxikebarri. Euskaraz. Sarrerak: Muxikebarriko txarteldegian zein Romo Kultur Etxean jaso beharreko gonbidapenez.

**Getxo Dantzan.** Getxoko eskal dantza taldeen eskutik, 10:30ean, kalejira (kale Nagusitik Bizkaia Zubira); 11:00etan, alardea; 14:30ean, herri bazkaria eta 18:00etan, erromeria (hiru ekitaldiak Eskoletako plazan). Dantza Plaza, leku berean, 19:00etan.

**Bisita gidatua.** Erregeen bide zaharretik. 11:30ean. San Inazio elizako plazatik. 2€. Informazioa: Turismo Bulegoa: 94 491 08 00 / [www.getxo.eus/turismo](http://www.getxo.eus/turismo)

### IRAILAK 21 OSTEGUNA

**Odol-ematea.** Areetako Geltokia plazan, goizez eta arratsalde.

**Ipuinaren ordua.** Algortako Kultur Etxean (Villamonten), 18:00etan, "Ipuin musikatuak", Albokarekin. Euskaraz. 4 urtetik gora. Sarrera dohainik.

### IRAILAK 22 OSTIRALA

**Kontzertua.** Muxikebarri, 21:00etan, "De costa a costa", Charlie Cosh & Mikel Gaztañagarekin. Sarrera: 8€.

**Kontzertua. Bakarka zikloa.** Romo Kultur Etxean, 19:30ean, Sonakay. Sarrera: 5€.

### IRAILAK 23 LARUNBATA

**Odol-ematea.** Bizkaia Zubia plazan, arratsalde.

**Antzerkia.** Muxikebarri, 19:30ean, "Todas las hijas", Ane Gabarain, Gemma Martínez, Maribel Salas, Sol Maguna eta Vito Rogadoren eskutik. Sarrera: 12€.

**Bisita gidatua eta antzeztua.** Portu Zaharra bere sustraietatik. 11:00etan, Ereagako Turismo Bulegotik. 6€. Informazioa: Turismo Bulegoa: 94 491 08 00 / [www.getxo.eus/turismo](http://www.getxo.eus/turismo)

**Ingurumen Aretoa.** 10:30-11:45 eta 12:15-13:30. Naturaren koloreak eta argia (3 urtetik aurrera). Aldez aurretik izena eman behar da: [www.ingurumenaretoagetxo.eus](http://www.ingurumenaretoagetxo.eus)

### IRAILAK 24 IGANDEA

**Dantza.** Muxikebarri, 19:30ean, "Bestias heridas o si Dios fuese una "mujer", Dama de vidrioren eskutik. Sarrera: 10€.

**Bisita gidatua.** Erregeen bide zaharretik. 11:30ean. San Inazio elizako plazatik. 2€. Informazioa: Turismo Bulegoa: 94 491 08 00 / [www.getxo.eus/turismo](http://www.getxo.eus/turismo)

**Ingurumen Aretoa.** 10:30-11:45 eta 12:15-13:30. Itsasoaren inguruko jolas bilduma. Aldez aurretik izena eman behar da: [www.ingurumenaretoagetxo.eus](http://www.ingurumenaretoagetxo.eus)



**Euskara.** Urte askotako esperientzia duen irakasleak eskola partikularrik emango dizkie haurrei Algortan, modu atseginean, jolasen, ipuinen, elkarriketen eta abarren bidez. Oso egokia A eta B ereduak ikasleentzat, banaka edo talde txikian. Tel.: 656 740 317.

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukia eragazkotasanunaren erantzule izango.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizi-tzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero. Komunikazio zinegotzia: **Mikel Erkoreka.** Zuzendaria: **Javier García.** Erredaktoreburua: **Itziar Aguayo.**

Erredakzioa: **Nekane Ardanza, Monika Rodrigo, Iñigo Olondo.** Urgull kalea z.g., 4. Tel.: 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: [getxokoudalaprentsa@getxo.eus](mailto:getxokoudalaprentsa@getxo.eus) Arte arduradunak: **Bassai Comunicación** Inprimaketa: **Comeco Gráfico Norte, S.L.U.** Banaketa: **Mediapost** Gordailu legala: **BI-388-87**

# Ikastetxe publikoetako bost patio eskola-ordutegitik kanpo irekitzen dira

Getxoko bost ikastetxe publikotako patioak (Andra Mari, Zubileta, Romo, Zabal eta Geroa) eskola-ordutegitik kanpo erabil daitezke dagoeneko. Udalak gogorarazi nahi du ekimenaren helburua espazio publikoen eskaintza zabaltzea dela, herritarrek, oro har, eta gazteek, bereziki, udalerriko auzo guztietan gozatzeko. Ildo horretan, Mihaela Jilavu Hezkuntza zinegotziak nabarmendu duenez "hone-la, Getxoko haurrei aisialdirako aukera bat ere eskaintzen diegu, testuinguru seguru eta huribilean denbora libre aprobeztatzeko, gure udalerriko gazte askoren topaleku baitira ikaste-

txeak". Geroan (mugako horma konpontzeko) eta Andra Marin (patio inklusibo bat sortzeko) egin berri diren lanen ondoren, bost zentroek aukera hori eskaintzen dute.

### Ordutegiak eta erabilera arauak

Andra Mari, Zubileta eta Romo zentroetako patioak, kasu bakoitzaren arabera, astelehenetik ostiral arratsaldera irekitzen dira, larunbat eta igandeetan, hainbat ordutegitan, eta kontrol-laguntzaile bat izango dute etengabe. Gainera, tokiko taldeek kirol-instalazioak erabiltzen jarraituko dute

entrenamenduak egiteko. Geroak eta Zabalak ez dute etengabe kontrolatzeko langilerik. Espazioak ezarritako orduetan ireki eta itxiko dira.

### Barruko espazioak

Gainera, aurten, berrikuntza gisa, Andra Marin, Zubiletan eta Romon hainbat jardueratarako (ikasteko gelak, hitzaldiak, tailerrak...) barruko espazioak eskatzeko aukera ere egongo da. Ordutegia izango da ireki baino ordu erdi geroago eta itxi baino ordu erdi lehenago.

Ordutegi guztiak hemen kontsulta daitezke: <https://labur.eus/s7c9Z>

## Dalila Argueta ekintzaile hondurastarraren lurraren defentsari buruzko hitzaldia

Dalila Argueta Hondurasko Giza Eskubideen eta Naturaren defendatzaileak hitzaldi bat eskainiko du datorren larunbatean, hilak 30, Lurraren eta ingurumenaren defentsari buruz. Hitzordua Larrañazubiko Ingurumen Aretoran izango da, 10:30ean, Mugarik Gabe GKEk eta Aretok bere antolatuta. Hain zuzen ere, giza eskubideen eta Hondurasko naturaren defentsa horregatik Arqueta kriminalizatua izan zen eta Euskal Herrira erbesteratu behar izan zen duela lau urte. Bisita gidatua ere egingo da Mugarik Gaberen *Bizitza Joakoan*. *Lurra, Bizitzak eta Eskubideak* izeneko erakuske-

tatik. Beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea [info@ingurumenaretoagetxo.eus](mailto:info@ingurumenaretoagetxo.eus) helbidean edo 688 88 35 96 telefonoan, eta Ingurumen Aretotik baieztapena jasotzea.

### Tximeleten tailerrak

Gainera, larunbaterako, hilak 23, Udalak eguneko eta gaueko tximeletei buruzko bi tailer antolatu ditu. Lehena 11:00etatik 14:00etara zehaztu beharreko toki batean izango da, eta bigarrena Ingurumeneko aretoaren aldean, iluntzean. Aurretik izena eman behar da [boluenatura@gmail.com](mailto:boluenatura@gmail.com) helbidean, aukeratutako tailerra zehazten (bietara ere apunta daitezke).

## Topaketa 2030 Agendari buruzko esperientziakin

Datorren asteazkenean, irailak 27, eCivis elkarteak antolatutako *ODS erronka: prest al gaude?* izenburuko topaketa izango da Getxo Elkartegian. 18:00etatik 20:00etara, hainbat gizarte- eta ekonomia-eremutatik etorritako pertsonak bilduko dira, gure inguruan, GJHak, Garapen Jasangarriko Helburuak eta 2030 Agenda lortzeari begira egiten ari diren esperientziak partekatuzko. Partaideen artean Iñigo Urkitza, Udaleko Ingurumen Zerbitzuko zinegotzia izango da eta horrek azalduko du zer egiten ari den toki-administrazioan GJHak lortzeko eta Getxoko herritarrei hurbiltzeko. Egitarau osoa eta aurretiko izenematea: [www.ecivis.eus](http://www.ecivis.eus) 636644671 edo [info@ecivis.eus](mailto:info@ecivis.eus)

## San Nikolas ikastolaren lan poltsa

Beste urte batez, San Nikolas ikastolak ikasturte honetarako jantokiko lan poltsa osatzeko deialdia kaleratu du. Interesatuek irailaren 29ra arteko epea izango dute eskaria aurkezteko. Jasotako guztiak ezarritako irizpideekin baloratuko dira, euskara izanik nahitaezko baldintza. Irizpideak eta informazioa: <https://sanikolas.eus/>



### Bisita Maria Carmen Garcia-Belenguer Valdesi bere 100. urtebetetzeagatik

Amaia Agirre alkateak Maria Carmen García-Belenguer Valdés erlijiosoa bisitatu zuen pasa den ostegunean, 100 urte bete zituela eta. Zaragozan jaioa, bizitzan zehar hainbat tokitan bizi izan da, tartean, Donostian, Bilbon eta Errioxan.... Gaur egun Algortako Sofia Barat egoitzan bizi da duela urte batzuek gerotik. Omendutakoak pozik jaso zituen ohiko Aixerrotaren oroigarria eta lore sorta bat.

STAFF





## “Todas las hijas”, emakumeen beldurrei buruzko bidaia

Ane Gabarain, Gemma Martínez, Maribel Salas, Sol Maguna eta Vito Rogado aktoreek, larunbatean, hilak 23, 20:00etan, Muxikebarrin, *Todas las hijas* lana antzeztuko dute. Muntaia bost aktoreen istorioa da, haien bizitzaren ipuina. Horiek haien bizipenez, ibilbideez, artearen ikuspegiak hitz egiten dute baita bularraren ondoan, bihotzaren eta birikaren artean dagoen kezka zergatiak ere. Agian mina da, edo beldurra besterik ez, edo adina da, edo bakardadea, edo batzuetan min ematen duen maitasuna, edo barre zeharkatu bat. Baina denak gogoratzen dira bere

## Sonakayren flamenko euskalduna RKEn

Sustrai ijito eta euskaldun sendoak dituen Sonakay, Donostiako talde flamenkoak bere azken diskoa, *Suerte* izenekoa, aurkeztuko du ostiralean, irailak 22, Romo Kultur Etxean. Hasieran, euskal kantagintzaren egiazko bertsiok egiten zituen, eta 2018an Got Talent saioan parte hartu zuten zuzenean gerotik, izugarri famatu dira. Benito Lertxundi eta Mikel Laboa kantarien nahiz Camarón, Paco de Lucía eta flamenko munduko beste izar batzuen espirituaren oinordekotzat jotzen dute beren burua. Real Sociedad taldearen Koparen himnoaren egileak izan dira.

Azken diskoaz gain, taldeak bere ibilbidearen kantu nabarmenen errepaso ere egingo du. Emanaldia 19:30ean hasiko da eta sarreraren prezioa bost eurokoa izango da.



amaz, horregatik dira denak alabak. Emakumeen beldurrei buruzko bidaia.

Gemma Martinezen proiektua da, David Caiñak idatzia eta Andrés Limak zuzendua. Sarreraren prezioa 15 eurokoa da.



## “Bestias heridas o si Dios fuese una Mujer” dantza ikuskizuna

Dama de vidrio konpainiak, Mario Tejero eta Davicaromek osatua, *Bestias heridas o si Dios fuese una Mujer* dantza ikuskizuna aurkeztuko du igandean, hilak 24, 19:30ean, Muxikebarrin.

Lanaren argumentuak gogoeta bat

planteatzen du: “Jainkoak ‘gizakia’ bere irudi eta antzera sortu bazuen, eta ‘gizakia’ arrazoitzeko edo hitz egiteko gaitasuna duen izaki bizidun gisa ulertuz gero, zerk eragozten dio ‘emakumeari’, ‘gizakia’ dela, Jainkoa izatea?”. Bost dantzarik emakume basati bat antzeztuko dute, amorratua, etengabe hazten, natura erakitzen duena harekin bat egin arte. Munstro bilakatzen diren animaliak eta munstroak pizti... Jainkoa arketipoa izanik, ‘gizakia’ estereotipoa, ‘emakumea’ prototipoa, animalia izatea da emaitza bakarra. Sarrerak 10 euroko prezioa du.

## Egizu eta Sendiren tailerrak

Urtero bezala, Egizu Euskara taldeak eta Sendi programak antolatutako euskarazko hainbat tailer eta ekitalditarako izenemateak ireki dituzte. Horrela, euskaraz izango diren yoga, egur-tailua eta plaza dantzak ikastaroetan parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute 722789302 zenbakian edo [egizugetxo@gmail.com](mailto:egizugetxo@gmail.com) helbidean. Informazioa: <https://egizu.eus/>.

Bestalde, Udalak eta Egizuk berak familietan euskara sustatzeko antolatutako Sendi programaren barruan, aurten lehengo aldiz, Liburujaleak irakurketa taldea familian abian jarriko dute 2015 eta 2017 urteen artean jaiotakoentzat, Alberto Bargasosen eskutik. Txi Kung familian ekimena ere izango da, eta urriaren 21 eta 22an mendi asteburua Aulestin. Informazioa eta izenemateak: 622 433 08 / [sendigetxo@gmail.com](mailto:sendigetxo@gmail.com)

## Grabatu-erakusketa

Antzezaleak taldeko grabatu-tailerreko C.Alvarez, M.Bravo, M. Jambrina eta A.Undurraga bazkideek Algortako Batzoki Tabernan grabatu-sorta bat (monotipoak eta akuaforteak) erakutsiko dute. Urriaren 31ra arte, hainbat gairen inguruan izango da.



## “De costa a costa”, country rock bidaia musikala

Ostiral honetan, hilak 22, Muxikebarriko Arrigunaga aretoan country rock kontzertua izango da, Charlie Cosh (gitarra eta ahotsa) eta Mikel Gaztañagaren (pianoa) eskutik. Bikoteak Estatu Batuetako kostalde batetik beste kostalde batera bidaia musikala bat proposatzen du, San Frantziskotik New Orleansera, 60ko hamarkadako rockaren, folkaren, bluesaren eta amerikar sustraiko musiken arrakasta handien errepaso eginez. Sarrerak 8 euro balio du.



## “Ramiro Pinilla” eta “Txiki Baskardo” sariak banatu dira

Ignacio Lloret gaztelaniazko lan onenaren saria eskuratu du “Ramiro Pinilla” eleberririk laburren lehiaketan (euskarazko saria eman gabe geratu da). Bestalde, Getxoko Aitana Díez eta Nora Escajedo ikasle gazteek jaso dute “Txiki Baskardo” haurrentzako ipuin lehiaketaren saria, euskarazko eta gaztelaniazko modalitateetan, hurrenez hurren. Kultur Etxeak eta “Pinnillesca” taldeak bultzatuta, egile getxotarraren jaiotzaren mendeurrena gogoratu da aurten.



# Jose Antonio Sellan, Txato, oso presente aurten Ama Mesedeetako jaietako egitarauan


Areetako Ama Mesedeetako jaiak ostiral honetan, hilak 22, hasiko dira. Aurten, txupinazoa bota eta pregoia irakurriko du, 19:30ean, jai batzordeak berak, aurten hil den Jose Antonio Sellan, Txato, Berantzagi dantza taldearen *alma materrarentzat* oso oroitzapen berezia izan nahi duelako. Ondoren, lore sorta bat emango diote alargunari, eta Berantzagik ohorezko aureskua eskainiko dio.

Ekitaldien egitarauak Txato gogoan izaten jarraituko du (beti oso aktibo jai hauetan, antolatzen eta parte hartzen). Horrela, larunbatean, hilak 23, 17:30etik aurrera, Eskoletako plazan dantza saio berezi bat izango da Berantzagiren eskutik eta dantza saio bat auzoko bi akademiekin.

Jaietan, gainera, ez da faltako Barraskilo Lehiaketa tradizionala, hilaren 24an, igandean, Amistad eta M<sup>a</sup> Cristina Erreginaren kaleetan. Horietan, aurten, egun berean, Marmitako Lehiaketa egingo da. Gastronomiari dagokionez, Tortilla Lehiaketa eta Paellada herrikoia ere egingo dira igandean, Eskoletako plazan, larunbatean, hilak 23, 13:00etan, gune berean egingo den sardinjana ahaztu gabe.

Programak, halaber, beste klasiko batzuk ere ditu, hala nola, adinekoentzako mokadua, herri kirolak, haurrentzako jarduerak (puzgarriak, jolasak, tailerrak) eta artisautza azoka, besteak beste. Gainera, Crono-Yincana bat egongo da, 18 urtetik gorakoentzat, ostiral eta larunbatean; magia ikuskizuna eta zirko erakustaldia. Jai-egitarauko ekitaldiak ez badira ere, Getxoko VII. Triatloi Olinpikoa eta Agustin Ugarteren Oroimenekoa izango dira Bizkaia Zubian, igandean, 12:00etan, eta Arenas-Tudelano partida, larunbatean, 18:30ean, Gobelan.

Azkenik, musika Txelu's Band (Amistad ka-



lea, 21:30ean) eta Sully Riot (Eskoletako plaza, 22:30ean) taldeen eskutik etorriko da, ostiralean, hilak 22, eta Retro Party (Amistad kalea, 22:00etan) eta Galker-Areetako Sound Gaua (Eskoletako plaza, 22:30ean) taldeen eskutik, larunbatean, hilak 23.

Egitarau osoa: [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)

## Gune morea eta zaintza

Gainera, Areetako Andres Larrazabal eta Paulino Mendivil kaleen elkargunean kokatuko da eraso matxisten biktimetako arreta zuzeneko gune morea Mesedetako jaietan, Udalak *Indarkeria matxistarik gabeko egunak eta gauak* lelopeko kanpainaren barruan antolatuta.

Gainontzeko jaietan bezala, karpa baten azpian, toki seguru eta lasaia izango da, eraso jasan duen emakumeari edo LGBTIQ+ pertsonari laguntzeko, emakume profesionalak artatu eta aholka diezaioten. Zerbitzuaren ordutegia irailaren 22 eta 23ko gauetan izango da, ostiralean, 21:30etik hurrengo eguneko 03:00etara eta larunbatean 22:30etik 04:00etara. Arreta-gune moreak artatzen dituzten profesionalekin harremanetan jartzeko aukera ere, izango da, 678 940 243 telefono-zenbakira deituta.

Bestalde, Udaltzaingoak eta Ertzaintzak operatibo bat jarriko dute martxan, ahal den neurrian, istilurik gerta ez dadin eta adin gabekoei alkohola ematea ekiditeko. Oraingoan gainera, berehalako arreta emateko karpa jarriko dute larunbatean, hilak 23, 19:00etatik, igandeko 05:00ak arte, Nagusi eta Andres Larrazabal kaleen artekoan, herritarrek joan ahal izateko, liskar, lapurretak gertatzekotan edo laguntza behar izatekotan.

Azkenik, ohi bezala, Areetako ostalaritzako establezimenduek ordu bat terdiz geroago itxi ahal izango dute irailaren 22an eta 23ean, ostiralean eta larunbatean.

## Getxoko hotel-eskaintza handitu egingo da urrian Palacio Arriluze Hotelarekin

Getxoko hotel-eskaintza handitu egingo da aurten, Palacio Arriluze Hotela irekiko baita, Luxu Handiko 5 izarretakoa, hain zuzen. Hotelak 49 logela, spa, gimnasioa eta *wellness* gunea izango ditu, kanpoko igerilekua, kroket zelai ofiziala eta homologatua, eta aparkaleku estalia. *Delaunay* jatetxearen eskaintza gastronomikoaz Beñat Ormaetxea Zornotzako sukaldaria arduratuko da.

Arriluze jauregia, udalerriko eraikin ikonikoetako bat, 1912an eraiki zuen Jose Luis Oriol arkitektoak (obraren zuzendaritza Manuel M<sup>a</sup> Smithen ardurapean zegoela). Oriolek bere koinatu zen Fernando M<sup>a</sup> Ybarraren (1875-1936) jauregia



eraikitzeke enkargua jaso zuen. Enpresaburu arrakastatsua izan zen hainbat sektoretan, eta Alfonso XIII. erregearekin adiskidetasuna izan zuen. Azken horrek Arriluze eta Ybarrako markes titulua eman zion 1918an. Geroago, jauregiaren barrualdea Rafael de Garamendik berritu zuen, Getxoko egoitza handienetako bat hainbat etxebizitza independente bihurtzeko.

Luxuzko hotel bihurtzeko berrikuntzak "*bere esentzia aristokratari eutsi dio, baina diseinu bereizgarri eta modernoarekin*", hotel-guneko iturrien arabera. Garai batean kapera zenaren beirateak eta liburutegiko artelanak mantendu egin dira.

## Special Olympics kirolariak R.S.C.-Abrako Itsas klubean

R.S.C.-Abrako Itsas Klubak, bere 125. urterena ospatzeko egitarauan, Special Olympics kirolariekin antolatutako jarduera bat antolatu du. Irailaren 25etik 28ra ospatuko da eta kirola eta Bizkaiko toki enblematikotara bisitak izango dira. Inaugurazio ekitaldia igandean izango da, hilak 24, 20:00etan, Txurruka kaian, Bilboko Koral Elkartearen emanaldiarekin. Zozoak (Getxo) eta Salazar



Abesbatzak (Portugalete) izango dira bertan. Pianojolea Mario Lerena izango da.

Special Olympics Bela ikastaroa, gero Abran egingo dena, adimen-urritasuna duten pertsonentzat kirol hau sustatzeko aukera bat izango da.

Bestalde, 200 estropadalarik parte hartuko dute Fashion Outlet-Jose Luis de Ugarte Bela Eskolako XXXIII Sariketean.